

Iztegia zetan doan, diñoe beronen ardurea daukeen euskaltzainak. "CH" izkia amaituta dago.

Euskeraren alde orainarte egin dabezan lanen esker-erakutsiz, Julio Caro Baroja ta Pedro Irizar jaunak urgazletzat artzea erabagi da.

Eta beste barik, araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

\* \* \*

Donostia'n, mila bederatzireun eta berrogetazazpi'garren urteko Irailla'ren ogetasei'an, Azkue jauna maipuru dala ta Ekautaren jauregian, batzen dira Urkijo, Etxaide, Irigaray ta Oleaga euskaltzainak il oneri dagokon Euskaltzaindia'ren batzarra egiteko.

Araudizko otoitza egin eta gero, lenaurreko batzarra'ren agiria irakurri da ta ao batez onetsia izan da.

Urrengo Azkue jauna'k irakurten ditu "Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas" lan ederra'ren atal batzuk.

Batzarretara uts barik etorri daitezala euskaltzainai eskatutea erabagi da gero.

Urkijo jauna'k adierazoten dau jakin dabela Paris'en il dala oraintsu Laconbe jaun euskaltzain izandakoa (g. b.). Euskaltzaindia'k au dala-ta here tamal sakona agertzen dau eta olan jakin arazi dakiela ildakoaren senideai erabagi dau.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

\* \* \*

Bilbao'n mila bederatzireun eta berrogetazazpi'garren urteko Azilla'ren ogetabederatzian, Euskaltzaindia'ren etxean, Azkue jauna maipuru dala ta Urkijo, Zamarripa ta Oleaga euskaltzainak bertan dirala, egiten dau Euskaltzaindia'k il oneri dagokon batzarra.

Asiera araudizko otoitzaz emoten dako.

Urrengo lenaurreko batzarra'ren agiria irakurri da ta ao batez onetsia izan da.

Gero Azkue jaunak irakurri ditu "Algunas curiosidades lingüísticas" deritxon lan politaren atal batzuk. Pozik entzun dira.

Federico Krutwig euskaltzain-urgazlea lankidetzat artzea erabagi da gero.

Araudizko otoitzaz amaitzen da batzarra.

\* \* \*

Donostia'n, mila bederatzireun eta berrogetazortzi'garren urteko Ilbelta'ren ogetamarrean, Azkue jauna maipuru dala-ta Urkijo, Etxaide, Irigaray eta Oleaga euskaltzainak bertan dirala egiten dau Euskaltzaindia'k il oneri dagokon batzarra.

Asiera, araudizko otoitzaz emoten jako.

Urrengo, lenaurreko batzar-agiria irakurri da ta aobatez onetsi da.

Gero adierazoten da Ramon Inzagaray euskaltzain jauna oraintsu il dala. Euskaltzaindia'k, beraren arimaren alde Aitagure bat otoitz egin-eta, tamal sakona agertzen dau ta ildakoaren senideai olan jakin arazi dakiola erabagi dau.

Orain arte euskerearen alde egin dituen lanen esker erakutsiz eta aurrerakoen pozgarri izan dakioen, Antonio Tobar jauna, Salamanka'ko irakastegi nagosiko irakaslea, Jose Vallejo jauna, Madrid'eko irakastegi nagosiko irakaslea ta Alessandro Bausani, Erroma'ko irakastegi nagosian izkuntzalari dana, urgazletzat artzea erabagi dau.